

## Donostiako Alkateordetzak DonostiaUP! 2019 Planaren barnean 9,5 milioi euroko laguntzak abian jarri ditu

9,5 milioi euroko aurrekontuarekin, Donostiako Alkateordetzak, Donostia UP! 2019 Planaren bitartez, Donostiako Sustapenak gauzatu, berriro ere abian jarri ditu epe ertainera eta luzera aplikatu beharreko neurriak, giza kapitala, enpresen lehiakortasuna eta lurralde-kohesioa bezalako kontzeptuen inguruko estrategiaren zati bezala. Planak talentua erakartzearen eta talentuari eustearen eta berrikuntza bultzatzearen aldeko apustua egiten jarraitzen du, eta beste bi kontzeptu bereak bezala onartzen ditu: enpleguaren kalitatea eta berdintasuna.

**Ernesto Gasco alkateordeak** ondorengo adierazi nahi izan du: "DonostiaUP! 2019 Plana pertsonentzako lan egiteko aukera ematen digun lehen tresna da, gehien behar duten taldeentzat urtero jartzen ditugun laguntzak eratzen baititu; hau da, pertsona langabeak, batik bat emakumeak eta 45 urtetik gorakoak. Horrez gain, ekosistema berritzailea indartzeko balio du, talentuari eusteko eta talentua erakartzeko laguntza-sorta zabal eta osoari esker, zeren berrikuntzak hiriko ehun ekonomikoko motoretariko bat izaten jarraitzen du. Klusterrak ere, surfa, moda, nekazaritzako elikagaiak eta smart-enak, plan horretatik elikatzen dira, hiriko sektore ekonomiko erakarle bezala finkatzen laguntzen die-eta".

Plan berria esku hartzeko logika batetik begiratuta, hirirako hiru funtsezko eremutan proposatzen da:

- **PERTSONAK**, gizarte osoaren oinarri bezala; pertsonen lagundu behar zaie lan-munduan sartzeko eta garatzeko, talentua bultzatuaz eta gizarte-kohesioa erraztuaz.
- **ENPRESAK**, enplegua sortzeko eta garapen sozio-ekonomikorako oinarrizko tresna gisa, bereziki arreta jarriaz balio erantsi handienekotan eta berrikuntzaren aldeko apustua egiten dutenetan.
- **LURRALDEA**: enpresen eta pertsonen jarduera egiten den ingurunea eratzen duten auzoak, azpiegiturak, espazioak eta ekipamenduak bezala hartuta, lurraldean SMART proiektuak garatu ahal izateko.

Esku hartzeko hiru eremu horiez gain, Donostia UP! Planak lau funtsezko apustu egiten ditu hiriari begira:

- **Berrikuntza** bultzatzea funtsezko balioa moduan, lurraldeko enpresek eta erakundeek beren jarduerak planteatzeko. Beraz, lehentasunezko helburua izango da balio



erantsi handiagoko enpresa-proiektuak bultzatzea eta hiriko berrikuntza-ekosistema indartzea.

- **Talentuaren** aldeko apustua egitea, hirirako oinarrizko aktibo gisa, lan-merkatuan sartzeko edo jarduera berriak sortzeko gaitasunak dituzten pertsoneri lagunduz.
- Gaitasunen garapenean, **hezkontza** indartzea, funtsezkoa izateagatik; hori dela-eta, planean prestakuntza-etapei garrantzia handia ematen zaie, eta gazteenen artean berrikuntza eta ekintzailtza sustatzen dituzten programa ezberdinak eskaintzen dira.
- Donostia munduko erreferentziazko **smart** hiri bilakatzea, eta, hori lortzeko, garapen adimentsua garatzea, hiriaren eta auzoen erronkak teknologiak eskaintzen dituen aukeren bitartez jorratu ahal izatearren.

DonostiaUP! 2019 Planean burutuko diren eta jada abian jarri diren jardueren artean ondorengoak nabarmendu behar dira:

#### 1.- Talde kaltetuenentzako babesa haien enplegarritasuna hobetzeko:

- **45 urtetik gorakoak lan-merkatuan sartzeko** programa, **9.000 €-ra** bitarteko laguntzarekin, merkataritza eta ostalaritza sektoreetan kontratatzeko.
- Lan-merkatuan sartzeko **genero-berdintasunaren** gaineko programa. 45 urtetik gorako emakumeen lan-taldeak abian jarri dira, enplegua bilatzeko laguntza eta aholkularitza prozesuan; "Coworking +45: Nire etorkizuna diseinatzen" deitzen da.
- Langabeak lan-merkatuan sartzeko orientazio-zerbitzua.

#### 2.- Merkataritza eta ostalaritza sustatzea eta bultzatzea hiriko sektore estrategiko moduan:

- Dendatic laguntzak, **4.000 €-ra bitartekoak**, eskatzeko epea ireki da. Merkataritzaren lehiakortasuna hobetu nahi da aholkularitza, prestakuntza eta laguntza programak abian jarrita, bereziki **digitalizazioa bultzatuaz** eta IKTeak ezarriaz.
- Maiatzean PUC programaren bostgarren edizioa atera da; hau da, Donostiako merkataritza-sektorean enpresa-ideien aholkularitza, tutorizazio eta azterketarako programa, merkataritzarekin zerikusia duen ideien edo proiekturen bat duten ekintzaileentzat.
- Beste behin, **Gabonetako Merkatu Handia** antolatuko da hirian, eta zonak eta postu-kopurua gehituko dira.
- Hiriko zona ahuletan saltokiak irekitzeko laguntzak.

#### 3.- Proiektu ekintzaile eta berritzaile berrientzako babesa programa ezberdinen bitartez:

- 



- **Enpresak sortzeko laguntzak, 10.000 €-ra bitartekoak**, lokal komertzialak alokatzea barne.
- **25.000 €-ra bitarteko laguntza-lerroa**, hirian burutuko diren ekitaldi berritzaileetarako.
- **Explorer programa**: une honetan, Donostiako Sustapena bederatzi proiektu ari da babesten Explorer programaren bitartez. Irabazleak Silicon Valleyra joateko bidaia irabaziko du.
- **Ekin+ programa**: proiektu berritzaileak bizkortzeko programa trinkoa, Donostiako Sustapenaren eta hiriko enpresa erreferenteen eskutik. Une honetan, hamalau proiektu ari dira parte hartzen, eta jada deialdi berria ireki da.
- **DonostialNN prestakuntza-tailerrak**. Hurrengoa maiatzaren 23an egingo da, eta enpresen LinkedIn-ari buruzkoa izango da.

#### 4.- Enpresa-proiektu berritzaileen lehiakortasuna hobetzea bultzatzea, DonostialNN programako laguntza hauekin:

- **Talentua Itzultzeko Programa**: hirira itzultitako donostiarrek kontratatzen dituzten enpresentzako partidak. **52.000 €-ra bitarte**.
- **Talentu Berritzailea Programa**: 35 urtetik beherako langile prestatuak kontratatzea bultzatzeko laguntzak, enpresako proiektu berritzaileak garatzeko. **10.000 €-ra bitarte**.
- **Bonu Teknologikoak**: hirian kokatutako zentro teknologikoek zenbait zerbitzu jartzen dituzte enpresen eskura. Tartean honako hauek aurkitzen dira: Tecnalia, Ceit-IK4, Vicomtech, Tecnum, Biodonostia, CIC Nanogune eta CIC Biomagune. **14.000 €-ra bitarte**.
- **Innplanta laguntzak**: enpresen proiektu berritzaileak bultzatzen dituen programa, zerbitzuak kontratatzeko, ekipoak erosteko edo enpresarako ekintza estrategikoak garatzeko diru-laguntzen bitartez. **8.000 €-ra bitarte**.
- Enpresentzako laguntza-programa **Ete Instrumentua** eskuratu ahal izateko. Programaren 1. Fasean eta 2. Fasean jada Donostiako 26 proiektu onartu dira.

Talentuaren Itzulera eta Talentu Berritzailea programetako laguntzek nahiz Connecting Talent Nazioarteko mugikortasunerako programak Europako Gizarte Funtsaren %50eko finantzaketa jasoko dute, Euskal Autonomia Erkidegorako EGIFen 2014-2020 Programa Operatiboaren esparruan. Programa ondorengoa da: "Donostia GazteEkin: langabe gazte kualifikatuak hiriko sektore emergenteetan eta estrategikoetan lan-merkatuan sartzea".

#### 5.- Finantzaketarako eta inbertsiorako erremintak:

- **Elkargiren** abal funtsak.



*Hiri berritzailea*  
*Ciudad innovadora*

fomentosansebastian.eus

## 6.- Berrikuntzaren estrategia eta talentua nazioartekotzea **Connecting Talent** tresnarekin:

- **Egoitzak programa.** Aurtengo berrikuntza da diruz lagundutako egonaldiak bi hilabetekoak izatek bost hilabetekoak izatera igaroko direla. Programa horretan, hirian proiektu berritzailea garatu nahi duten nazioarteko ekintzaileei bidaia, ostalua eta ekarpen ekonomikoa errazten zaizkie. Gainera, profesional oso kualifikatuak erakarri nahi dituzten enpresei laguntzen die, eta Donostia ezagutzaren eta berrikuntzaren gune gisa jartzen eta sustatzen duten adituen, erakundeen eta beste hiri batzuen arteko lankidetzak bultzatzen ditu.

- **Nazioarteko mugikortasunerako programa.** Jada epea irekita dago norberaren hautagaitza aurkezteko Donostiako gazteentzako 40 bekaren arteko bat eskuratzeko (iaz 25). Adina 35 urtera arte igo da.

## 7.- Berrikuntza-ekosistema bultzatzea:

- **Weekinn-Berrikuntzaren Astearen 5.** edizioa. Urriaren 26tik 31ra bitarte egingo da.
- 

## 8.- Giza kapitala eta talentua garatzea berrikuntzarekin lotura duten gaitasunen bitartez:

- **Donostia Innovation Campus** programa abian jartzea, hiriko ikastetxeetan eta prestakuntza-zentroetan berrikuntzako gaitasunak garatzeko, bereziki STEM (zientzia, teknologia, ingeniariaritzeta eta matematikak) bultzatuta.

- **Donostia Design Zentre** garatzea. Maiatzean ikastaro bat egin du Miramar Jauregian.

## 9.- Donostiako 4 sektore ekonomikorentzako bultzada espezifikoak, Smart, Nekazaritzako Elikagaiak, Surfa eta Modako Tokiko Klusterren bitartez:

- **Smart:** hirian Smart estrategia sortzea, pilotu garapenetan gauzatu ahal izateko, hiriko auzo ezberdinetan hiri birsorkuntza bultzatuaz. SmartKalea proiektua Antso Jakitunera eramango da, eta jarduera berriak egingo dira Alde Zaharrean eta Altzan. Txomineneako auzoari dagokionean, parte-hartzeko prozesua jorratuko da, eta etxebizitzaren birgaikuntza, etxebizitzaren adimentsuak, konektibitatea, mugikortasun iraunkorra, e.a. bezalako gaietan jarduerak ezarriko dira. Hori guztia iraunkortasun ekonomikoa eta jarduerak erreplikatzeko aukera bilatuaz. 2019. urtean, halaber, Bera Bera auzoko agenteekin lan egingo da, gune horretan Smart jarduerak planifikatzeko.

- **Nekazaritzako elikagaiak:** tokiko produktuak sustatzea eta ezagutzera ematea, eskaintza eta eskaria gehitzeko aukera ematen duten proiektuak abian jarrita. KM0 produktuen katalogoa egitea, Bertako Produktuen Eguna antolatzea, Donostia Urban Lur nekazaritzako ekintzailetzako proiektua abian jartzea, e.a.

- **Surfa:** surfaren industriaren proiektzioa hobetzea hirian. Surfeko berrikuntzako ideien lehiaketa unibertsitateekin eta enprekin elkarlanean, Surfeko Hirien Nazioarteko Sarea kudeatzea eta koordinatzea, Surf Eskolen lana eskaintza urtarotasunetik ateratzeko, e.a.

- **Moda:** balio-katea handitzea eta "San Sebastián Moda" marka sustatzea. Hirian jostuntzarako espazio berria garatzea, tokiko diseinatzaileentzako espazioak Garbera Merkataritza Zentroan eta hiriko hotel batzuetan, e.a.



Laguntzei nahiz laguntzak eskatzeko aukerari buruzko informazio osoa Donostiako Sustapenaren web orrialdean aurki dezakezu: [www.fomentosansebastian.eus](http://www.fomentosansebastian.eus)



*Hiri herrizailea*  
*Ciudad innovadora*

fomentosansebastian.eus